

CATCHWORD: KARAKTEREEN IRAKURKETA OPTIKOA

Catchword programa, Logitech-en Scanman eskuzko scannerrek behar zuten programa lagungarria da. Catchword, karaktereak optikoki irakurtzen espezializatutako adimendun softwarea da.

Minutuko 2.000 karaktere irakur ditzake eta ikas-keta-fase labur baten ondoren edozein karaktere-mota irakurtzeko gai da. Edozein dokumentu inprimatu PCko testu-prozesadorera pasatzeko programa egokia da hau.



Programa honen interface-ak sagua onartzen du eta leiho bidezko menuen bitartez funtzionatzen du. Konfigurazio honi esker aldi berean parametro bat baino gehiago hauta daiteke; testuaren bereizmena (200 puntutik 400 puntura bitartekoa) eta hizkuntza (gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana, etab.) adibidez.

Catchword 1.1ek beste irakurgailu edo scanner batzuek irakurritako karaktereak ere onartzen ditu, TIFF motako fitxategien inportazioaren bidez.

SMART CACHE PLUS, ORDENADOREA AZKARRAGOTZEKO

Smart Cache azeleratzeko kontroladorea, sistema eragile erabiltzaile-anitzetan CPUan datuak bilatzeko behar zen itxaron-denbora laburtzeko diseinatu zen. Smart Cache Plus-ek, honez gain, erabiltzaile-kopurua handiagotzea eta SCSI gailu periferikoak konektatzea ere onartzen du.

Txartela modularra da eta, beraz, cache memoria 0,5 Mb-etik 16,5 Mb-era bitartekoa izan daiteke. Txartel honen bidez lortzen den errendimendua 3-5 aldiz handiagoa da baldintza normaletan, eta 15 aldiz handiagoa sistema erabiltzaileanitzetan.

ZENITH-EN MULTIMEDIA PC-A

Zenith Data Systems etxea Windows interface grafiko erabiliz multimedia arloan lan egiteko balioko duen PC berria sortzeko ikerketak burutzen ari da.

Etxe honen aurrikuspenen arabera, makina berri hau 1991. urtearen erdi aldera egongo da kalean eta

Windows Multimedia softwareaz gain MS-DOS sistema eragilearen 5.0 bertsioa instalatuta edukiko du disko gogorrean.

Enpresa honetako Produktuen Garapenerako lehendakariordeak adierazi duenez, multimedia ordenadore honek bideo-, soinu- eta CD-ROM zerbitzuak eskainiko ditu. Hasiera batean batez ere hezkuntza eta simulazio-aplikaziotarako izango bada ere, gerora ordenadore honen erabilera esparru zabalagoa hedatuko den esperantza osoa dute.

Makina honekin batera Bull HN Worldwide enpresak ImageWorks sistema kaleratuko du. Sistema hau dokumentuak maneiatzeko sistema da eta testu-, grafiko- nahiz irudi-fitxategiak erabiltzeko aukera eskaintzen du.

IBERMATIKA: SEKTORE ELEKTRIKORAKO APLIKAZIOAK

Ibermatikak eta Valladolideko unibertsitateak sinatutako akordioaren ondorioz, Ibermatikako Teknologia Berrien saila eta Unibertsitateko Injinerutza Elektrikoko saila elkarlanean arituko dira Injinerutza Elektriko arloko sistema adituen diseinuaren inguruan proiektuak garatzeko.



Honez gain, Ibermatikak garatua du jadanik sistema aditu bat Iberduerorentzat. Sistema hau sare elektrikoaren plano kartografiko batean oinarritzen da eta automatikoki egiten ditu lehen delineaiztaileak eskuz egiten zituen eskema elektrikoak.

Ildo berari jarraituz, TIFSA (Trenbideetako Ikerketa eta Teknologia) erakundearekin batera Renferko geltokietako kontrolerako sistema lagungarria garatu du. Ordenadore bidezko diseinurako eta Sistema adituen garapenerako erremintak konbinatuz, geltokietako maleta-gordelekuak antolatu, orratzen aldaketa kontrolatzen duen taula konplexua diseinatu eta trenen higidura egokiak edota argi-seinaleak kontrolatzen ditu.